

# Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko dituzun testuei lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

## JALGI HADI PLAZARA!

### Internet eta gainontzeko hedabideak aprobetxatuta

- ✓ Lan-unitate osoan zehar eguraldiaz hitz egingo dugula aprobetxatuta, **aukera paregabea daukazu egunez eguneko eguraldiaren iragarpena kontsultatzeko**. Euririk egingo al du? Euri-arriskurik egongo al da? Nongo haizeak joko du?... Eguraldiaren berri izateko, nahi duzun hedabidea erabil dezakezu: egunkaria, irratia, telebista, Internet... Hori bai, ez ahaztu ikaskideei iragarpenaren berri ematea!
- ✓ Eguraldiaren iragarpenak telefonoan kontsultatzeko ohitura daukazu? Bada, egunero-egunero **eguraldi iragarpenak euskaraz kontsultatzeko aukera izango duzu, baldin eta Euskalmet-en app-a deskargatzen baduzu**.
- ✓ Kanta askok eta askok eguraldiarekin dute zerikusia. Euria dela, ekaitza dela, elurra dela... ugari dira eguraldiarekin lotura duten kantak. **Sar zaitetz [www.badok.eus](http://www.badok.eus) izeneko webgunean eta idatzi bilatzailean eguraldiari lotutako hitzen bat**. Ondoren, aukeratu gustuko kantaren bat eta haren inguruan ikertu: hitzak, taldea/kantaria, mezua... Azkenik, animatuz gero, eraman ezazu kanta ikasgelara, eman ikaskideei kantaren berri eta, nola ez, entzun eta kantatu!
- ✓ Hona hemen eguraldiaren inguruko erreportaje interesgarri pare bat: bata, bideoa; bestea, testua. Adostu ikaskide batekin zein ikusiko duen bakoitzak. Nork berea landu eta informazioa txukun-txukun eskema batera ekarrita, eman elkarri jasotako informazioaren berri; hori bai, eskeman jasotako jakingarriak erabiliz:
  - Ikasbil webguneko *Eguraldia beti presente*. [Hemen](#).
  - Ikasbil webguneko *Eguraldiari buruzko bitxikeriak*. [Hemen](#).

### Zure ingurua aprobetxatuta

- ✓ Larrialdi klimatikoa ziurtzat joko dugu lan-unitatean zehar, baina, guztiz ziur egoteko, eskarmentua dutenei galdetzea bezalakorik ez dago. Tira, bada, egin dezagun proba. **Elkartu adindun familiako edo ezagun batekin eta egin iezaiozu eguraldiaren inguruko elkarrizketa**. Helburua da jakitea ea benetan eguraldia aldatzen ari den ala ez. Elkarrizketa eginda, kontatu esperientzia zure ikaskideei eta eman elkarrizketatik ateratako ondorioen berri.
- ✓ Eginkizunean zehar, zenbait aholku jasoko duzu larrialdi klimatikoari aurre egiteko. Besteak beste, Eusko Jaurlaritzak argitaratu duen **52 keinu aldaketa klimatikoaren kontra** izeneko liburuxkatik hartutako batzuk. Liburuxka oso interesgarria da eta, benetan, oso aholku praktikoak ematen ditu gero eta ohitura ekologikoagoak izateko. Interesatzen bazaizu, **goiko estekan sakatuta deskargatu ahal duzu liburuxka osoa. Eman begiratu bat eta, informazioa jasota, kontatu ikaskideei praktikoa iruditzen zaizun aholkuren bat edo beste**.